



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

***ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN
GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN
AGINTARAUDIA.***

***ORDENANZA REGULADORA DEL
IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES,
INSTALACIONES Y OBRAS.***



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ARAUDIA

ARRAZOIEN AZALPENA

Araudi honen helburua da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga arautzen duen Agintaraudiaren 22. artikulua a) puntuan onartzen diren hobariak arautu eta zehaztea eta hobari hori lortzeko egin behar den prozedura zehaztea.

Artikulu horrek jasotzen du Udalak ondasun higiezin zergan %95eko hobariak eman ahal izango dizkiela herriarentzat onuraeko edo interes bereziko aitortzen diren eraikuntza, instalazio eta lanei, aitortza hori justifikatuko duten arrazoi sozial, kultural, historiko-artistiko edota enplegua sustatzekoak gertatuko balira.

Aitorpen hori ematea Udalbatza Osoari dagokio eta subjektu pasiboak aurrez hala eskatuta egingo da, udalbatzakideen gehiengo soilaren aldeko botoarekin.

Udalbatza Osoak, aurreko urteetan, iritzi izan dio baserriak eraberritu edo eraikitzeko, edota teilatuak berritu eta fatxadak konpontzeko lanak Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergagatik ordaindu beharreko kuota ordaintzetik salbuetsiak zeudela eta hala jasotzen zuten ezar zitezkeen zerga-agintaruetan.

Era berean, Udalbatza Osoak bere gain hartu eta arautu zuen birgaitze integratuko lanetan %90eko salbuespena aitortzeko jarraitu beharreko prozedura, Eusko Jaurlaritzan horren eskumena duen Sailak halakotzat aitortzen zituen lanetan.

REGLAMENTO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El objeto del presente reglamento es el regular y concretar las bonificaciones reconocidas por la Ordenanza reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras en su artículo 22 punto a) y definir el procedimiento a seguir para la obtención de la señalada bonificación.

Dicho artículo establece que el Ayuntamiento podrá conceder bonificaciones del 95% en el impuesto sobre bienes inmuebles a construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento de empleo que justifiquen tal declaración.

Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.

El Pleno de la Corporación en años anteriores entendió que las obras de remodelación y construcción de caseríos, las obras de retejo y arreglo de fachadas estaban exentas del pago de la cuota correspondiente al impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras y así lo recogía en las ordenanzas fiscales aplicables.

De la misma manera, el Pleno de la Corporación entendió y reguló el procedimiento a seguir para el reconocimiento de la bonificación del 90% de las obras de rehabilitación integrada reconocidas como tales por el Departamento correspondiente del Gobierno Vasco.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hobari edo salbuespen horiek ez direnez aitortuak izan Udalbatza Osoak onartu eta 2004ko urtarrilaren 1etik indar izateko onartu zituen zerga-agintaruetan, aipatutako salbuespen-jardunbideari ezar dakioken araudia aldatu egin denez, eta kontuan izanik birgaitze-lanei dagokien hobaria ez dela han jaso eta Udalak nolarebait jarduera horiek saritu nahi dituela, Udalak iritzi dio Araudi hau idaztea komeni dela, zerga-agintaruen 22.a) artikuluan jasotako hobariak gauzatu eta idatziz jasotzeko, legokiokeen unean Udalak aitor ditzakeen gainerakoen kalterik gabe.

Visto que dichas exenciones no han sido reconocidas en las ordenanzas fiscales aprobadas por el Ayuntamiento Pleno y con efecto al 1 de enero de 2004 pues se ha modificado la normativa aplicable a dicho régimen de exenciones y visto que la bonificación de las obras de rehabilitación no se han recogido y que el Ayuntamiento desea premiar de alguna manera dichas actuaciones, conviene la redacción de este Reglamento que establecerá la concreción de las bonificaciones recogidas en el artículo 22 a) de las ordenanzas fiscales, sin perjuicio de las que reconozca el Ayuntamiento en su caso.

1. artikulua.- Ezartze esparrua.

1.- Azkoitiko udalerrian dauden baserrietan egingo diren eraikuntza, instalazio eta obrak, bai eta baserri berriak eraikitzea eta nekazaritza eta abelazkuntza lanetarako eraikin osagarriak eraikitzea ere.

2.- Norbanakoak bizitzeko eraikuntzen fatxadak eraberritu eta erreteila lanak.

3.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak birgaitze integratuko lan moduan aitortutako lanak.

2. artikulua.- Eman daitekeen hobaria.

Adierazi diren lehenengo bi egoeretan hobaria %95ekoa izango da eta hirugarrenean %90ekoa.

3. artikulua.- Jokabidea.

Azaldu diren hiru egoeretakoren batean dagoela irizten dion zergadunak herritarren arretarako bulegoan eskaera bat aurkeztu beharko du, eta bertan erakutsi aipatutako egoera horietakoren batean dagoela, ondoren eskatzen diren agiriak aurkeztuz:

Artículo 1.- Ámbito de aplicación.

1.- Construcciones, instalaciones y obras que se realicen en caseríos del término municipal de Azkoitia, así como la construcción de un nuevo edificio de caserío y construcción de edificios anejos destinados a la actividad agropecuaria.

2.- Obras de retejo y remodelación de fachadas de edificios residenciales.

3.- Obras declaradas por el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco como obras de rehabilitación integrada.

Artículo 2.- Bonificación aplicable.

Para los dos primeros casos la bonificación será del 95 % y para el tercer caso será del 90%.

Artículo 3.- Procedimiento.

El contribuyente que considere encontrarse en unos de los tres casos deberá presentar en la oficina de atención al ciudadano una instancia en la que acredite encontrarse en alguna de los anteriores casos, presentando la siguiente documentación:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Baserria birgaitu edo baserri berria egiteko lanak egin nahi baldin badira, dagokion obra-lizentzia eskuratzea eta bertan ager dadila lan horiek nekazaritza ustiapen bati lotua dagoen eraikuntza batean egiten ari direla.
 - Erreteila berria egitea baldin bada, horretarako behar den lan-lizentzia.
 - Hirugarren egoera baldin bada, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak ematen duen Obra amaierako ziurtagiria ekarri beharko dute eskatzaileek, bertan birgaitze lan horien zenbatekoa adierazita.
- Para el caso de que se trate de rehabilitación de caserío o construcción de un nuevo caserío la obtención de la licencia de obras correspondiente en la que figure que la obra se ejecuta en una construcción vinculada a una explotación agraria.
 - Para el caso de que se trate de un retejo la correspondiente licencia de obras.
 - En el tercer caso, los solicitantes deberán aportar la certificación fin de obra del Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco, en el que se indique el importe de la obra de rehabilitación.

Eskaera aztertu ondoren, eta lanen izaera frogatzen baldin bada, eskatutako hobaria eman ala ez erabakiko du Alkateak, arrazoitutako Dekretu baten bidez, hilabeteko epean.

Una vez analizada la solicitud, y si se acredita la naturaleza de la obra, el Alcalde acordará la concesión o no de la bonificación solicitada mediante decreto de forma motivada en el plazo de un mes.

4. artikulua.- Indarrean jartzea.

Artículo 4.- Entrada en vigor.

Araudi honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunaren biharamonetik izango du indar.

El presente reglamento entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.